

# 56ko belaunaldia, Jakin Taldea eta Joxe Azurmendi

**29.Jul - 30.Jul 2024**



**Cód. K07-24**

**Mod.:**

Online en directo Presencial

**Edición**

2024

**Tipo de actividad**

Curso de Verano

**Fecha**

29.Jul - 30.Jul 2024

**Ubicación**

Centro Carlos Santamaría

**Idiomas**

Euskera

**Validez académica**

20 horas

**DIRECCIÓN**

**Iñaki Zabaleta Gorrotxategi**, UPV/EHU, HEFA

**Kristina Lasas Otxoteko**, UPV/EHU, HEFA

**Comité Organizador**



ZENTZIA, UNIVERSITATATE ETA  
BERRIKUNTA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CIENCIA,  
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

## **Descripción**

Bere iragana ezagutzen ez duen herri batek ezin du etorkizunik eduki eta, hortik abiaturik, Uda Ikastaro honen helburua Euskal Herriaren bilakaeran esanahi berezia izan duen garai bat behatzea da. Berau 1956ko belaunaldiaren garaia da, modu zabal eta malguan ulertu behar dena, non *Jakin* taldeak orokorrean eta, horren baitan, Joxe Azurmendik bereziki aparteko garrantzia duten. Horiek denek, beste batzuekin batera, euskal hizkuntzaren, kulturaren eta herriaren aldeko ekosistema moduko bat osatu zuten, zeinaren ondorio onuragarriak gurdaino ere iritsi diren.

Uda Ikastaro hau, preseski, Joxe Azurmendi Katedrak antolatu du, hain zuzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak elkarrekin sortutako Katedrak. Hauxe da beraren helburu nagusia: *"Joxe Azurmendiren eta 1956ko belaunaldiko kideen obra eta pentsamendua ikertza, ustiatzea eta transmititzea"* eta *"euskal pentsamenduak eta euskal gizarteak bere garapenerako behar duten masa kritikoa indartzea"*. Katedraren helburu horren haritik ulertu behar da, preseski, gure Ikastaroaren azken asmoa ere.

Aurrean dugun erronka, orokorrean esanda, euskal pentsamendua garatzen joatea da eta, esan bezala, horretarako ezinbestekoa da pentsamendu horren historia aztertzea eta ezagutzea. Alde askotatik begiratuta, 1956ko urtea berezia izan zen: gogora ditzagun, adibidez, orduan ospatutako Arantzazuko *"Euskaltzaleen Biltzarra"* edota Parisko *"Euskal Batzar Orokorra"*. Hori horrela, abiapuntu gisa urte hori hartuz, baina horretan geratu gabe, Ikastaro honen helburua hau da: garai horretan euskararen herriari begira jorratutakoa gogora ekartzea.

## **Objetivos**

Orokorrean 1956ko belaunaldiak euskal hizkuntzaren, kulturaren eta herriaren garapenaren alde egindakoak ezagutzea.

1956tik aurrera *Jakin* taldeak eta Joxe Azurmendik euskal kultura eta pentsamendua sustatzeko egin dituztenak gogora ekartzea.

Euskaldunon etorkizunari begira 1956ko garaiak izan duen garrantzia ulertzeko informazioa eta baliabideak eskaintzea.

1956ko testuinguruan literaturaren bitartez transmitituriko pentsamendua ulertzea eta aztertzea.

## **Colabora**



# Programa

## 29-07-2024

08:45 - 08:55	
08:55 - 09:00	Presentación por parte de la Dirección de la actividad
	<b>Iñaki Zabaleta Gorrotxategi</b> <b>Kristina Lasa Otxoteko</b>
09:00 - 09:40	""Gure herriak ez dauka kondairarik " (1968)"
	Euskal herritarren balizko iragana eta Jakin taldearen ekarpenak (1956-1989)
	<b>Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga</b>
09:40 - 10:20	"56ko belaunaldia gaurko lokatzetatik"
	<b>Lorea Agirre Dorronsoro</b> <b>Idurre Eskisabel Larrañaga</b>
10:20 - 11:00	"Arantzazu 1956 eta euskal kultura"
	<b>Paulo Agirrebalzategi</b> <b>Paulo Iztueta Armendariz</b>
11:00 - 11:30	Pausa
11:30 - 12:10	"Gure herriak ez dauka kondairarik" (1968)"
	Euskal Historiografia Jakin taldearen sorreraren garaian.
	<b>Emilio Majuelo Gil</b>
12:10 - 12:50	"Euskaltzaindiaren suspertzea 1950eko hamarkadan: Jakin taldearen eragina"
	<b>Miren Karmele Azkarate Villar</b>
12:50 - 13:30	"Iparraldea, poesia, politika"
	<b>Agurtzane Ortiz Lopetegi</b> <b>Eneko Bidegain Aire</b>

## 30-07-2024

09:00 - 09:40	"Euskara batua hizkuntzalaritza orokorraren ikuspegitik"
	<b>Juan Carlos Moreno Cabrera Cabrera</b>
09:40 - 10:20	"Euskara biziaren aldeko borrokan: 1956tik aurrera eta atzera begira"
	<b>Alaitz Aizpuru Joaristi</b> <b>Iñaki Zabaleta Gorrotxategi</b>

10:20 - 11:00	"Joxe Azurmendiren pentsamendua gaur"  <b>Haritz Azurmendi Arrue Andoni Olariaga Azkarate</b>
11:00 - 11:30	Pausa
11:30 - 12:10	"Literatura eta zentsuraren arteko teinka Jakin taldearen jardunean"  <b>Lourdes Otaegi Imaz</b>
12:10 - 12:50	"Euskal pentsamenduaren ikergaiak: zeri begiratu"  <b>Ibai Iztueta Azurmendi Haritz Garmendia Iturria</b>
12:50 - 13:30	"Frantziar literaturaren eragina gurean: Jon Mirande eta Jarrai taldea"  <b>Kristina Lasa Otxoteko Mari Jose Telletxea Tolosa</b>
13:30 - 13:35	Cierre  <b>Kristina Lasa Otxoteko Iñaki Zabaleta Gorrotxategi</b>

**Dirigido por:**



**Iñaki Zabaleta Gorrotxategi**

UPV/EHU, HEFA

---



**Kristina Lasa Otxoteko**

UPV/EHU, HEFA

---

## **Profesorado**



### **Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga**

UPV-EHU

---

Catedrático de Historia Contemporánea. (UPV-EHU). Investigador Principal del grupo de investigación consolidado, Biography & Parliament. ([www.prosoparlam.org](http://www.prosoparlam.org)). Ha publicado 26 libros (12 autoría única y 14 de autoría compartida con miembros del equipo de investigación), 82 artículos en revistas científicas indexadas y 87 capítulos de libros colectivos. Editor de 31 libros. - Director de obras de autoría colectiva: Gran Atlas de Historia de Euskal Herria (1998), Historia de Euskal Herria. Historia general de los vascos (2004, 6lib.). Historia de la Diputación Foral de Bizkaia (2014). Diccionario biográfico de Diputadas y Diputados del Parlamento Vasco.1980-1984. (Gasteiz Vitoria, Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco, 2021) Euskal Herritarren Burujabetza (2012) Premio Miguel de Unamuno de ensayo XII.Edición. Premio EUSKADI de Investigación 2020. (Área de Humanidades y Ciencias Sociales). (Gobierno Vasco. Departamento de Educación).



### **Paulo Agirrebalzategi**

---



### **Lorea Agirre Dorronsoro**

Jakin, Zuzendaria

---

Lorea Agirre Dorronsoro (Beasain, 1968) Informazio Zientzietan lizentziatua da eta Antropologia Kulturalean master duna. Lanbidez, kazetaria da, Argia, Euskaldunon Egunkaria eta Berria-n aritutakoa urte luzez, eta egun, Jakin aldizkariko zuzendaria da. Irakasle ere izan da Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultatean eta baita EHUn ere. Bere ikerketa gai nagusiak hizkuntza, kultura eta komunitatearen arteko loturak dira, betiere genero ikasketen markoa. 'Trikua esnatu da. Euskaratik feminismora eta feminismotik euskararara' (Susa, 2019) da bere azken liburua, Idurre Eskisabel Larrañagarekin lau eskutara idatzia. 'Gezurra ari du. Egunkariaren itxieraren kronika' eta Rosa Luxemburg eta Joxemi Zumalaberriren biografia bana ere argitaratuak ditu



**Alaitz Aizpuru Joaristi**

---



**Miren Karmele Azkarate Villar**

---




**Haritz Azurmendi Arrue**

---



**Eneko Bidegain Aire**

---



**Idurre Eskisabel Larrañaga**

UPV/EHU, Irakaslea

---

Kazetaritzan eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziaduna. 'Euskaldunon Egunkaria'-n eta 'Berria'-n urte luzez aritua, egun irakasle EHUKo Kazetaritza II Sailean. Medioek nazioekin eta sexu-genero sistemarekin duten uztardura eta soziolinguistika ditu ikergai. Hainbat mediotan kolaboratu du; egun, Euskadi Irratian eta Radio Euskadin aritzen da. 2019an 'Trikua esnatu da' saiakera liburua argitaratu zuen Lorea Agirre Dorronsorekin batera. Literatur arloan 'Goseak janak' poemategia argitaratu zuen 2018an.



### **Haritz Garmendia Iturria**

EHU

---



### **Paulo Iztueta Armendariz**



### **Ibai Iztueta Azurmendi**

IRALE

---



### **Kristina Lasa Otxoteko**

UPV/EHU, HEFA

---



**Emilio Majuelo Gil**

---



**Juan Carlos Moreno Cabrera Cabrera**

---

Juan Carlos Moreno Cabrera (Madrid, octubre de 1956). Es doctor en Filosofía y Letras (Filología Hispánica) y ha sido profesor de Lingüística en la Universidad Autónoma de Madrid (1978-2020) hasta su jubilación voluntaria. Ha participado como investigador en dos proyectos europeos: EUROTRA (1987-1990) y EUROTYP (1990-1994). En 2014 fue galardonado con el XXIV Premi Internacional Ramon Llull y desde ese año es miembro del Comité Internacional de la Cátedra UNESCO de Diversidad Lingüística y Cultural. Es miembro de honor, desde 2010, de la Sociedad para el estudio del andaluz (ZEA) y en 2022 fue nombrado embajador de la lengua asturiana. Entre sus libros más recientes figuran: Cuestiones clave de la lingüística (2013), Multilingüismo y Lenguas en Contacto (2016), Claves Históricas de la Lingüística Actual (2017), Origen y evolución de la gramática (2018), Iconicity in Language (2020) y La clasificación de las lenguas (2021). Ha publicado mas de cien artículos en revistas y volúmenes colectivos y treinta libros sobre tipología lingüística, sintaxis, semántica, lenguas del mundo, política lingüística y metodología lingüística, entre otros temas.



**Andoni Olariaga Azkarate**

Iratzar

---



**Agurtzane Ortiz Lopetegi**

Agurtzane Ortiz Lopetegi (Irun, 1969) Euskal Filologian lizentziatua da, eta Euskal Ikastetetan doktore Paua eta Aturrialdeko Unibertsitatean (2004). Manex Erdozaintzi-Etxarti buruzko tesi-lana egin zuen, gerora "Manex Erdozaintzi-Etxart, herriaren poeta" (Elkar, 2010) liburuan argitaratu zuena. Hainbat eragilerekin batera, iparraldeko autorearen idazlanak eta artxiboak biltzeko eta babesteko lanean jardun du, eta ikerketa-gai hura bera izan du zenbait artikulu, solasaldi eta hitzalditan. 2004tik hona editore lanean dihardu Elkar Argitaletxeen, ikasmaterialgintza eta haur literaturaren esparruan.



### **Lourdes Otaegi Imaz**

UPV/EHU

---

Euskal Filologian lizentziatua (1982) eta Literatura arloan doktore (1992) Deustuko Unibertsitatean. Literatura Konparatuko postgradua egin zuen Bartzelonako Unibertsitatean. Euskal literaturan espezializatu da eta zenbait azterketa monografiko burutu ditu Bigarren Errepublikaren garaiko Euskal Pizkundeari buruz, eta bereziki Xabier Lizardi idazleari buruz. Literatura garaikideari buruzko Ikerketa Proiektoetan parte hartu du, eta azterlan horien emaitza zenbait artikulu zientifiko eta liburu-ataletan mamitu da. Euskaltzaindiaren urgazle da eta Literatura Ikerketa Batzordearen kide da 1998tik hona (idatzari, 2000-2008), Literatura Terminoen Hiztegia egitasmoa koordinatuz (2008). Irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean. Gisa berean, Baionako Master 1-en irakasten du (Univ. Michel de Montaigne Bordeaux III, Frantzia) eta UNED Unibertistatearen Masterrean XIX. mendera arteko Euskal Literaturaren ikasketen arduradun da.



### **Mari Jose Telletxea Tolosa**

---

Ikasketak Filosofian Lizentziaduna Ikerketa aurreratuetan Diploma Kultur Antropologian Musikan Goi Mailako Titulua Alemaneko B2 maila Argitalpenak UEUn "Psikoanalisiaren razionaltasuna Lakatosen arabera" RIEVen "Mikel Laboaren kantagintzari begirada bat filosofiak hamar urteren buruan" EIMA katalogoan: "Jon Mirande Aphasorhoren pentsamendu filosofikoa" Itzulpena JAKINen Musikaren filosofia (T. Adornoren artikulu batzuk) Elkarlana Oarsoaldeko Hitzan zutabegile, 2019-20 urteetan



**Iñaki Zabaleta Gorrotxategi**

UPV/EHU, HEFA

---

## Precios matrícula

<b>PRESENCIAL</b>	<b>HASTA 31-05-2024</b>	<b>HASTA 29-07-2024</b>
<a href="#"><u>Tarifa joven</u></a>	25,00 EUR	50,00 EUR
<a href="#"><u>UIK euskaraz</u></a>	-	71,00 EUR
<a href="#"><u>Matrícula reducida general</u></a>	-	61,00 EUR
<a href="#"><u>Exención de matrícula</u></a>	-	50,00 EUR
<a href="#"><u>Profesionales y estudiantes de euskaltegis o centros homologados de autoaprendizaje</u></a>	-	61,00 EUR
<a href="#"><u>Elkar</u></a>	-	61,00 EUR
<a href="#"><u>Cursos para Tod@s</u></a>	-	61,00 EUR
<a href="#"><u>Donostia Kultura</u></a>	-	61,00 EUR
<hr/>		
<b>ONLINE EN DIRECTO</b>	<b>HASTA 31-05-2024</b>	<b>HASTA 29-07-2024</b>
<a href="#"><u>Tarifa joven</u></a>	25,00 EUR	50,00 EUR
<a href="#"><u>UIK euskaraz</u></a>	-	71,00 EUR
<a href="#"><u>Matrícula reducida general</u></a>	-	61,00 EUR
<a href="#"><u>Exención de matrícula</u></a>	-	50,00 EUR
<a href="#"><u>Profesionales y estudiantes de euskaltegis o centros homologados de autoaprendizaje</u></a>	-	61,00 EUR
<a href="#"><u>Elkar</u></a>	-	61,00 EUR
<a href="#"><u>Cursos para Tod@s</u></a>	-	60,00 EUR
<a href="#"><u>Donostia Kultura</u></a>	-	61,00 EUR

## **Lugar**

### **Centro Carlos Santamaría**

Plaza Elhuyar, 2. 20018- Donostia / San Sebastián

Gipuzkoa